

6. IKASGAIA. ARIKETAK

Industria batean ingurumen-arriskua identifikazio lanetan hurrengo arrisku-agertokia deskribatzen da: sustantzia toxikoa duen ontzi bat hautsi egiten da eta lurzorura isurtzen da.

Arrisku-agertoki honen ezaugarriak hurrengoak dira:

Istripua hilean 2 aldiz gerta daiteke

Magnitueda ertaina da

Bere eragin-eremua zabala da

Lurzorua lurrezkoa da

Kalkulatu arrisku-agertokiaren ondorio mailak eta arrisku-matrizean agertokia kokatu.

Arrisku-mailak honela sailkatzen direla kontuan hartu:

Arrisku-maila I: Egoera kritikoa. Berehala zuzendu beharrekoa (35-45)

Arrisku-maila II: Neurri zuzentzaileak behar dira (25-35)

Arrisku-maila III: Posible bada eta teknikoki eta ekonomikoki justifikatuta badago, hobekuntza-neurriak ezarri behar dira (15-25)

Arrisku-maila IV: Ez da esku hartu behar, azterketa zehatzago batek justifikatzen ez badu, behintzat (5-15)

Taula 1. Probabilitatearen baloreak

	Balorea
Gertakaria, istripua edo larrialdi egoera urtean behin edo urtean behin baino gutxiagotan gertatuko da	1
Gertakaria, istripua edo larrialdi egoera hilean behin baino gutxiagotan baina urtean behin baino gehiagotan gertatuko da	2
Gertakaria, istripua edo larrialdi egoera hilean behin baino gehiagotan gertatuko da	3

Taula 2. Magnitudearen baloreak

	Balorea
Txikia	1
Ertaina	2
Handia	3

Taula 3. Arriskugarritasunaren baloreak

	Balorea
Substantzia ez arriskutsuak	1
Substantzia kaltegarriak, narritagarriak,	2
Substantzia sukoiak, toxikoak, narritagarriak, ingurumenarentzat arriskutsuak	3

Taula 4. Hedaduraren baloreak

	Balorea
Eragin-eremu zehatza	1
Tokiko eragin-eremua	2
Eragin-eremua zabala	3

Taula 5. Ingurumen sentsibilitatearen baloreak

	Balorea
-	1
Asfaltoa edo hormigoia duten tokiak	2
Inguru berdeak, lurra edo hartxintzarra dutenak	3

Soluzioa:

Ondorio-maila kalkulatzeko tauletan datuek dagokien baloreak bilatu behar dira:

	Magnitudea	Arriskugarritasuna	Hedadura	Inguruaren sentsibilitatea
Ontzia hausteagatik isurketa	2	3	3	3

Ondoren, ondorio.mailak kalkulatzeko hurrengo ekuazioa erabiltzen da:

$$OM = \text{Magnituedea} + (2 \times \text{Arriskugarritasuna}) + \text{Hedadura} + \text{inguruaren sentsibilitatea}$$

$$OM = 2 + 2 \times 3 + 3 + 3 = 14$$

Ondorio-maila minimoa:

$$OM = 1 + 2 \times 1 + 1 + 1 = 5$$

Ondorio-maila maximoa:

$$OM = 3 + 2 \times 3 + 3 + 3 = 15$$

Probabilitatea 3 (1. taulatik) 3 denez arrisku –maila hurrengo ekuazioa erabiliz kalkulatu da:

$$AM = PM \times OM = 3 \times 14 = 42$$

Arrisku-matrizea

ONDORIO-MAILA		Handia 11-15	Ertaina 8 <11	Txikia <5 >8
PROBABILITATEA	Handia 3	Ontzia hausteagatik isurketa		
	Ertaina 2			
	Txikia 1			

Arriskuen-maila 42 dela kontuan hartuz hurrengo kasua izango litzateke:

Arrisku-maila I: Egoera kritikoa. Berehala zuzendu beharrekoa (35-45)